



**Arartekoaren 2023NI-1160-21 EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 2koa. Honen bidez, judizialki ezinduta dagoen eta kalteberatasun-egoeran eta gizarte-bazterketako egoeran dagoen gazte bati emandako gizarte-arretari buruzko jarduketa amaitzen da.**

### Aurrekariak

1. Herritar batek kexa bat helarazi dio Arartekoari, gizarte-zerbitzuek emandako gizarte-arreta dela eta. Bertan azaldu du ez zuela behar bezalako arretarik jaso ez udaleko gizarte-zerbitzuen partetik, ez foru-aldundiko gizarte-zerbitzuen partetik.

Arabako Foru Aldundiak tutoretza bere gain hartu zuen gazte batek egindako kexa da. Kexa aurkezteko unean, %47ko desgaitasuna zuen, baita desgaitasun intelektual arina, jokabide-nahasmendua eta faktore sozial osagarriak ere. Adin-nagusitasunera iritsi behar zenean (2016ko irailean), ezgaitze judiziala izapidetu zen. Auzitegiak kexagilea ezgaitzea erabaki zuen eta tutore bat izendatu zuen, ezgaitzearen unean aplikatzekoa zen araudiari jarraiki.

Kexagileak salatu du kalean zegoela, ostatu gabe. Azaldu du, hilean 399,20€-ko prestazio ekonomikoa jasotzen bazuen ere, ezinduta zegoenez, prestazioa kudeatzea tutoretza-erakundeari zegokiola, baina erakundearen benetako jarduketa-aukerak ez zetozeela bat bere itxaropenekin. Kexagilearen ustez, ezgaitzea erabaki zenez, foru-erakundeak ostatu eta diru-sarrera nahikoak eman behar zizkion. Beraz, Foru Aldundiaren esku-hartzea bere bizi-plana garatzen laguntzera mugatzen zela kritikatu zuen. Hori dela eta, bere desgaitasuna berrikusteko beharra adierazi zuen, baita bere gaitasuna aldatzekoa ere.

2. Arartekoak kexa izapidetzeko onartu zuen, eta azalduko egitateen berri emateko eskatu zion Arabako Foru Aldundiari.

3. Arabako Foru Aldundiak egoeraren eta arreta emateko zailtasunen berri eman zuen. Era berean, azaldu zuen tutoretza-fundazioaren eginkizunen artean ez dagoela etxebizitzaren edo mantenuaren beharrei erantzutea. Txostenean, gaztea aurkitzeko zailtasunak nabarmendu zituen, eta adierazi zuen horrek Foru Aldundiaren esku-hartzea eta bizi-plan bat formalizatzea oztopatu zuela.

Horrez gain, egoitza bilatzeko egindako jarduketan berri eman zuen; izan ere, horretarako, hainbat administraziori baliabideak eskatu zizkien eta ostatuetara jo behar izan zuen. Halaber, adierazi du kexagilea udaleko gizarte-zerbitzuek artatu zutela, Aterpen zehazki. Era berean, aipatu du kexagileak espetxe-zigorra bete zuela.



Bestalde, txostenak dio kexagileari Mendekotasunen Orientazio eta Tratamendu Zentrora, (MOTZ) joateko eskatu ziotela, baina, lehen hitzorduaren ostean, ez zuela itzuli nahi izan. Kexagilearen egoera ekonomikoari dagokionez, Aldundiak fundazioarekin batera egindako eskaerak nabarmendu ditu, baita prestazio ekonomiko baten onuraduna zela ere.

**4.** Arartekoak, jasotako txostena ikusita, informazio gehiago eskatu zion Arabako Foru Aldundiari; zehazki, honako gai hauei buruz:

- a) Zer jardun egin ziren adin-nagusitasunera iristean gizarte-arretari jarraipena emateko, haren kalteberatasun-egoera kontuan hartuta.
- b) Zein diren helduarora igarotzeko programa batean sartu ez izanaren arrazoiak.
- c) Dagozkion balorazio-eskaerak aurkeztu ziren, gizarte-langile bat esleitu zen eta Arreta Plan Pertsonalizatu bat egin zen; Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua aplikatuz.
- d) Zer garrantzia duen kalteberatasunen elkarguneak, eta zer iritzi duzun egoera horretan esleitu behar zitzaion baliabidearen inguruan.
- e) Zer iritzi duzun Arartekoak helarazitako alde zuzenaren inguruan.

Era berean, Arartekoak informazioa eskatu zien Gasteizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Gazteen Justizia Zerbitzuari, gazte-justiziako egoitza-zentrotik irteteari eta Arabako Foru Aldundiko gizarte-zerbitzuen eta Gasteizko Udalaren arteko koordinazioari buruzko alderdiak argitzeko.

Halaber, Arartekoak hainbat gogoeta helarazi zituen. Gogoeta horiek, hemen errepikatzea saihesteko, ondoren azalduko dira.

**5.** Arartekoak honako informazio hau jaso zuen administrazio publikoengandik:

#### Arabako Foru Aldundiaren partetik

Arabako Foru Aldundiak adin-nagusitasunera iristean egindako jarduketan berri eman du, gizarte-arretari jarraipena emateko:

Azaldu du adin nagusikoa izan aurretik neurri judizialak bete behar zituela, zehazki, azaroaren 11ra arte Uribarri Hezkuntza Zentroan eta baita Eguneko Zentroan ere, bi hilabetez. Hortaz, bere kalteberatasun-egoera kontuan hartuta, Sansoheta Gizarte-hezkuntzako Etxean jarraitzea eskaini zitzaion.

Badirudi ez zituela hartutako konpromisoak eta funtzionamendu-arauak bete (ordutegiak ez betetzea, baimendu gabe ez agertzea), eta ondorioz 2016ko abenduaren 12an baja eman zioten zentroan, "arreta-plan indibiduala behin eta berriz ez betetzeagatik". Foru Aldundiak azaldu du kexagilea Abegia Egoitza unitate soziosanitarioan sartzen saiatu zela, baina ez zuela lortu, kexagilea ez zelako joan



Mendekotasunen Orientazio eta Tratamendu Zentroko profesionalekin izan behar zituen aurretiazko elkarrizketetara, eta, beraz, Osakidetzak ezin izan zituen bidali balorazioa egiteko beharrezko txostenak.

Foru Aldundiak adierazi du kasuaren berri eman ziola Udalaren Gizarte Larrialdietarako Zerbitzuari, eta gazteak bilera bat izan zuela bertan.

2017ko irailean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) erreferentziazko gizarte-langile bat esleitu zuen Arreta soziala eta Informazio bulegoan. Erreferentziazko gizarte-langilea koordinazioan egon da zerikusia duten eragileekin: Osakidetzak, tutoretza-erakundea eta Gasteizko Udaleko Hurbil taldea.

Era berean, 2021eko azaroan egindako gizarte-bazterketaren ebaluazioak adierazi zuen kexagilea gizarte-bazterketa larriko egoeran zegoela. Horren ondorioz, arreta-programa individual bat egin zen, eta Abegia Egoitza unitate soziosanitarioan sartzeko eskatu zen.

Bestalde, desgaitasunaren eta mendekotasunaren balorazioa berrikusteari buruz izandako hitzorduak aipatu ditu.

Helduarora igarotzeko programa batean ez sartzeko arrazoiei dagokienez, txostenak adierazi du programa horiek zaugarritasun berezia duten eta gizarteratzeko zailtasunak dituzten gazteei zuzenduta daudela. Gazte horiek laguntza onartzeko ibilbidean sartzen ari dira, eta independizatzeko prozesuari ekin diote arreta-plan individualen bidez. Plan horiek barne hartzen dituzte ostatua aktiboki bilatzea, lana izan aurreko edo laneko ekintzak, errespetua eta bizikidetzak.

Foru-erakundeak kexagilearen egonaldia luzatu egin zuen egoitza-zentroan, eta esku-hartze plan individual bat prestatu zuen gaztearekin batera, bere autonomia sustatzeko eta etorkizunari ahalik eta baldintza onenetan aurre egiteko.

Hala ere, txostenak adierazi du "ez zirela finkatu kexagilea helduarora igarotzeko trantsizio-programa konprometitu bati atxikitze gutxieneko atxikimendu-baldintzak (...); esate baterako, emantzipazio-pisu bateko bizikidetzak edo prestazio ekonomikoak. Zailtasun asko daude (...) bere burua zaintzeko, elkarbizitzarako, erantzun arduratsua eta aktiboa emateko, prestakuntza-ikastaroetara joateko, epaitegian irekitako espedienteak ditu eta kontsumoak, jokabide disruptiboak eta baimendu gabeko absentziak ditu, besteak beste".

Txostenak dio gogoeta egin behar dela baliabide-sareak zailtasun pertsonalak, kulturalak, sanitarioak, judizialak eta sozialak dituzten eta helduarora igarotzen ari diren gazteen beharrei erantzuteko duen gaitasunari buruz (kasu honetan, gainera, zailtasun horiei desgaitasun arina, portaera disruptiboak, jokabide antisoziala, baliabide ekonomikorik eza, kontsumoak eta esku-hartzeetara atxikitze zailtasuna ere gehitu behar zaizkie), bai eta horrelako egoeretan esku hartzeko metodologiari buruz ere.



“Hau da, ‘nahi ez duten gazteak baino, ezin duten gazteak’, hainbat arrazoiengatik; gaur egungo trantsizio-programekin bat ez datozenak eta, beharbada, ‘beste trantsizio-programa batzuk’ edo ‘beste lan-metodo batzuk’ behar dituztenak, laguntza handiagoa eta indibidualizatuagoa bermatzera bideratuak eta sektoreen arteko, erakundeen arteko eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren lehen eta bigarren mailako arreta-sarearen, Osasun Sistemaren, Sistema Judizialaren eta Hezkuntza Sistemaren arteko koordinaziotik abiatuta”.

Txostenak kexagilearen egoeraren alderdi-aniztasuna nabarmentzen du, hainbat balorazio, desgaitasun, bazterketa-arrisku edo -egoera, mendetasun-egoera eta babesgabetasun-egoera biltzen baititu. Hori dela eta, pertsonan oinarritutako arreta eman ahal izateko, beharrezkoa da esparru kaltetuenetan besteezko korrelazioan esku hartzea. Pertsonaren borondatea, halaber, erabakigarria da. Hainbat sistematan esku hartzen duten profesional asko dago: oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta espezializatuak, justizia, osasuna...

Era berean, txostenak hausnarketa interesgarriak mahaigaineratzen ditu honako gai hauei buruz:

-Babes-sistemak (osasuna, etxebizitza, diru-sarreraren bermea eta gizarte-zerbitzuak) eskatzen dituzten kalteberatasunak eta esku-hartzearen garrantzia non kokatzen den (osasun-sisteman, psikiatra profesionalak kalean lagunduta, pertsonak mendekotasuna eta jokabide-nahasmendua dituelako eta ez delako MOTZekin lotzen; etxebizitza-sisteman, etxebizitza sozialetarako laguntza pertsonalizatuko programen bidez, etxerik gabeko pertsona delako; diru-sarreraren bermea eskuratzeko malgutasunean; gizarte-laguntzan eta gizarte-zerbitzuen sistemaren berezko harremanak indartzean eta erreferentziazko profesionala nor izan behar den).

-Zer lehenetsi esku-hartzean, pertsonak bere bizi-prozesuekiko duen erantzukizuna, erakundeek arreta bermatzea, esku hartzen duten profesional anitzen arteko harreman-prozesuak jarraitzea.

-Nola mantendu lotura profesionala eta laguntza-harremana, egoera kaltebera bat eraldatzeko.

-Zein diren borondatearen eta derrigortasunaren arteko mugak.

-Nola bermatu esku-hartze profesionalaren alderdi etikoak, betiere kalterik ez egitearen printzipioa eta justizia-, autonomia- eta ongintza-printzipioak errespetatuz.

Azkenik, Foru Aldundiaren txostenak adierazten du “pertsona horren egoerak agerian uzten duela gizarte-zerbitzuen arretaren paradigma; izan ere, oreka mantendu behar dute erabiltzaileek beren helburuak zehazteko ahalduntzearen eta



beren bizi-plana egitearen artean; arreta errespetuz antolatzearen eta ematearen artean; erabiltzaileen eskubideak sustatzearen eta defendatzearen artean; laguntza-ereduak aplikatzearen artean; arreta pertsonalizatua ematearen artean (pertsona eta harremanetan oinarritutako arretaren ikuspegitik); eta pertsonen eta administrazio-prozedura instituzionalen erritmo desberdinen artean, besteak beste. Hau da, gizarte-zerbitzuen erabiltzaileek autodeterminaziorako, autonomiarako edo independentzia funtzionalerako eta aukeratzeko duten eskubidea, versus irizpide profesionalak, instituzionalak eta arauzkoek ezarritako gizarte-arreta emateak interplatzen gaitu”.

### Gasteizko Udalaren partetik

Udaleko gizarte-zerbitzuek Arartekoari jakinarazi diote GOFek kexagilea gizarte-zerbitzuetara bideratu zuela 2016ko abenduan, arreta eman ziezaioten, “une horretan zegoen baliabidean araudia eta ordutegiak behin eta berriz ez betetzeagatik eta adin nagusikoa zelako”.

Udalaren Gizarte Larrialdietarako Zerbitzuak (UGLZ) Aterpe gaueko zentroan ostatu-estaldura eta Casa Abiertan mantenua eman zizkion. Txostenaren arabera, laguntza horiek ez ziren mantendu, kexagileak ez zituelako behar bezala baliatu.

2017ko uztaillean, kexagileak ostatu-aukerarik bazegoen galdegin zuen, eta udal-baliabideetan plazarik ez zegoela jakinarazi zitzaion. Era berean, 2017ko urrian, gizarte-zerbitzuetara jo zuen, eta jakinarazi zioten ez zegoela plaza librerik. Bestalde, 2018aren hasieran, kexagileak laguntza jaso zuen Neguko Ostatu Zerbitzuaren bitartez.

2020ko abenduan, GOFek udaleko gizarte-zerbitzuei jakinarazi zien kexagileak ez zituela betetzen osasun mentaleko edo desgaitasuneko baliabideak eskuratzeko baldintzak. Kexagilea, bestalde, ez zen joan alde aurretik hitzartutako hitzordu batera. Hala ere, geroago agertu zen eta informazioa eskatu zuen jaso zitzakeen zerbitzu eta prestazio ekonomikoei buruz. Elikagaien Bankura bideratu zuten 2020ko otsailetik apirilera. Beste hitzordu bat eman zioten arreta-plan pertsonalizatua ezartzen joateko. Ez zen hainbat hitzordutara joan, eta, beraz, azkenean Hurbil taldera bideratu zuten, eta GOFen bazterketa ebaluatzeko irizpideak hastea proposatu zen.

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Arartekoari aditzera eman zizkion hasierako hezkuntza-proiektua, jarraipen- eta amaiera-txostenak eta neurri judiziala bete bitartean gaztearekin izandako esku-hartzeari buruzko beste dokumentu esanguratsu batzuk.

**6.-Azkenik,** kexa-espedita hau itxi behar genuenean, Arartekoak jakin du Gasteizko Udaleko Hurbil taldeak artatu duela gaztea eta desgaitasun-azterketa bat egin diotela. Emaizari dagokionez, kexagilearen desgaitasuna % 55era igo da, zehazki nahasmendu mentala eta mugako adimena dituelako. Gainera, neurri



judizialak berrikusi dira, eta alderdi jakin batzuk kudeatzeko laguntza mantentzea erabaki da, hala nola kudeaketa ekonomikoa eta gainbegiratutako plaza bat eskuratzeko erabakiak hartzeko laguntza jasotzea. Bestalde, kexagilearen gizarte-bazterketa ebaluatu da, eta, horren arabera, gizarte-bazterketa larriko egoeran dago. Azkenik, gaur egun, gazte horrek diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen du.

### Gogoetak

**Lehenengoa.-** Arartekoaren esku-hartzeak, espediente honi dagokionez, bi alderdi ditu. Alde batetik, kexa aurkeztu duen gaztearen zurgarritasun-egoera; izan ere, kexa jarri zuenean kalean zegoen, zerbitzu publikoren baten babesik gabe, esleitutako erakundeko tutoretzaren laguntza izan ezik. Bere egoera bideratu egin da, eta, beraz, kexagileak gaur egun ostatua eta berrikusitako ebaluazioak ditu, eta neurri judizialak hartu dira. Gainera, gizarte-bazterketaren ebaluazioa ere egin da, eta, horren arabera, gizarte-bazterketa larrian dago. Horregatik, arreta pertsonaleko plan bat egin da.

**Bigarrena.-** Beste alderdia administrazio publikoek egindako jarduketekin eta espediente honetan biltzen diren inguruabarrekin lotuta dago; izan ere, elkarren artean lotutako eta gizarte-arretan ohikoak diren hainbat aldagai dituen arazo konplexu bati erantzuna eman nahi zaio.

Kexagilea gutxiengo kultural bateko kide da, ez du familiaren laguntzarik eta mugako adimena eta nahasmendu mentala ditu, bai eta arrisku-jokabideak ere (kontsumoa...), eta adingabeak babesteko sistemak artatu du urteetan zehar.

Arartekoak behin eta berriz nabarmendu du garrantzitsua dela egoitza-zentroetako irteerak zaintzea, bai adingabeak babestekoak, bai gazte-justiziakoak. Legeak edo agindu judizial batek xedatzen du zentro horietan sartzea, eta ezin da nahi gabe kanporatu edo atera. Hala ere, adinez nagusia izatean edo neurria bete ondoren, gazteek gizarte-larrialdiko zerbitzuetara soilik jo dezakete, arretaren jarraitutasuna bermatu gabe. Dena den, funtsezkoa da egoitza-zentrotik ateratzea behar bezala antolatzea, gizarteratzeko ondorengo edozein ibilbide aintzat hartuta, eta, bereziki, seniderik ez duten gazteen kasuan, adinari lotutako ahultasuna dela eta.

Espediente honi dagokionez, gazteari neurri judizialak ezarri zitzaizkion eta behin eta berriz urratu zituen ostatu eman zioten eta hezkuntza-jarraipena izan zuen egoitza-zentroen funtzionamendu-arauak.

Egoera ikusita, Gasteizko gizarte-larrialdietarako zerbitzura bideratu zuten. Zerbitzuak Aterpen plaza bat eta Casa Abiertan mantenua eskaini zizkion. Bidezkoa dirudi galdetzea ea plaza hori gazte horren beharretara egokitzen zen. Nolanahi ere, ez zituen aipatutako zerbitzuak erabili, eta ibilbide kaotikoa sortu zuen. Hainbat aldiz bete behar izan zituen Gazteen Justizia Zerbitzuan eta espetxean sartzeko



neurri judizialak, eta pentsio pribatuetatik kanporatu zuten. Horrez gain, hainbat denboraldi kalean eman behar izan zituen.

**Hirugarrena.-** Gizarte-zerbitzuek kasu horretan egindako jarduketak aztertuta, Arartekoak gogoeta orokorrako egin ditu azaldutako auziari buruz, kexagileak jarritako kexatik harago doazenak.

Zalantzarik gabe, espediente honetan hartutako erabaki gehienak pertsonaren jokabideagatik eta lankidetzarik ezagatik izan dira. Hala ere, hausnartu behar da ea horrelako kasuetan —hots, premia ugari dauden kasuetan—, posible izango litzatekeen profesionalen eta sistemen arteko koordinazioa eta lankidetzaren hobetzea eta egiturak ex profeso antolatzea, esku-hartzean jarraitutasuna bermatzeko eta pertsonak jakiteko araututako ibilbide bat duela, zeina aurrerapausoen eta atzerapausoen arabera aldatu daitekeen.

Helduarora igarotzea zaintzea arrazoizkoa eta desiragarria izateaz gain, hura babesten duen esparru juridiko bat ere badago:

Hala, Haurrak eta nerabeak zaintzeko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen 22 bis artikulua honako hau adierazten du:

*“Las Entidades Públicas ofrecerán programas de preparación para la vida independiente dirigidos a los jóvenes que estén bajo una medida de protección, particularmente en acogimiento residencial o en situación de especial vulnerabilidad, desde dos años antes de su mayoría de edad, una vez cumplida esta, siempre que lo necesiten, con el compromiso de participación activa y aprovechamiento por parte de los mismos. Los programas deberán propiciar seguimiento socioeducativo, alojamiento, inserción socio-laboral, apoyo psicológico y ayudas económicas”.*

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak duela 18 urte jada aurreikusi zuen helduarora igarotzeko programak behar zirela:

*“44. artikulua: 1.–Herri-administrazioek, beren eskumenen esparruan, helduarora igarotzeko programak sortuko dituzte, bai eta horien sorrera sustatuko ere.*

*2.–Lege honen ondorioetarako, hauek dira helduarora igarotzeko programak: nerabeei bizimodu heldu eta beregainari dagozkion jardura eta erantzukizunetarako prestakuntza eskaintzen zaizkienak.”*

Programa horiek garatzeko aukera bat zehazten du [uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuak](#), gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautu dituenak, 3.2 artikuluan (geroago urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, jaso du adingabeentzako egoitza-zentroei buruzko 2.4.4 fitxan):



*“... Salbuespen gisa, eta zaindutako pertsonak eta Foru Aldundi eskudunak adostu ostean, adin nagusi izan aurretik babes-sareko baliabide batean bizi ziren 18 urte edo gehiago dituzten gazteak izan daitezke egoitza-harrerako baliabideen erabiltzaileak emantzipazio-programaren esparruan, betiere 18 hilabeteko gehieneko aldian.”*

Aldez aurretik tutoretzapean egon diren edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden gazteek arreta jasotzeak duen garrantziaren onarpen juridikoak agerian uzten du gizarteaz eztabaidaezina den beharrizan bat: familia-erreferenterik ez duten 18 eta 23 urte bitarteko gazteek konpainia eta gizarte eta prestakuntza baliabide egokiak behar dituztela euren bizitza bideratu ahal izateko.

Kasu honetan, gainera, gutxiengo etniko batekoa da: ijito herria. Herri horrek hamarkadatan diskriminazioa jasan du; eta, desberdintasun-egoeraren ondorioz, Europar Batasunak, Espainiak eta EAEk neurriak ezarri dituzte haien gizarte-bazterketako egoera —hori baita haien egoera askotan— aldatzeko<sup>1</sup>.

Hortik ondorioztatzen da kezka handiagoa eta ijitoen zailtasun espezifikoari arreta emateko konpromiso publikoa behar direla.

Bestalde, desgaitasun intelektuala duen pertsona bat da; eta haren afekzioak ezgaitasun judiziala ekarri zion. [Urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak](#), Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, aurreikusten du foru-aldundiak eskumena duela bigarren mailako arretako zerbitzuak emateko (besteak beste, ezgaitasunen bat duten eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako ohiko etxebizitza edo etxebizitza iraunkorra —eta, hala badagokio, aldi baterakoa— izateko bizikidetzaz-zerbitzuak); baldin eta beren premiak behar bezala ase ezin badituzte beren etxebizitza pertsonalean edo familia-etxean. Laguntzak dituzten etxebizitzak edo ezgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroak —2.4.2 fitxa— izan daitezke. Adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroa (2.2.1 fitxa) ere xedatzen da; edo zerbitzu edo okupazio-zentro bat, ezgaitasunen bat duten pertsonak gizarte-bizitzan aktiboki parte har dezaten laguntzeko, garapen pertsonaleko programen bidez —produktzio-jardueraren inguruko programak, haiei enplegua lortzen laguntzeko, ahal denean— (2.2.2 fitxa).

Gainera, bildutako informazioaren arabera —2022ra arte balorazioa egin ez bazen ere—, gizarte-bazterketako egoeran zegoen. Beraz, honako hauek egokitu ahal zitzaizkion: baztertuta dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzuak (1.7.2), gaueko harrera-zerbitzua (1.8) eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitza-zerbitzua (1.9.2) (udal eskumenekoak); edo, bestela, gizarte-bazterketa egoeran zegoela baloratu ondoren, gizarteratze-premiei

<sup>1</sup> Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak 2022an 2022-2026rako Ijito Herriarekiko EAEko Estrategia onartu du, zeinak kontuan hartu baitu Ijitoak Gizarteratzeko Estrategia Nazionalen Europako Esparrua. Hemen eskuragarri: [https://bideoak2.euskadi.eus/2022/03/21/news\\_75836/Ijito\\_Herriarekiko\\_Euskal\\_Estrategia\\_2022\\_2026.pdf](https://bideoak2.euskadi.eus/2022/03/21/news_75836/Ijito_Herriarekiko_Euskal_Estrategia_2022_2026.pdf)





erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa (2.2.3), gizarteratze-premiei erantzuteko gaueko harrera-zentroa (2.3.2.) (biak ere bigarren mailako arretaren eskumenekoak, hau da, foru-aldundienak).

Puntu honetara iritsita, Arabako Foru Aldundiak Arartekoari azaldutako gogoeta gogora ekarri behar da:

“Babes-sistemak (osasuna, etxebizitza, diru-sarreraren bermea eta gizarte-zerbitzuak) eskatzen dituzten kalteberatasunak eta esku-hartzearen garrantzia non kokatzen den (osasun-sisteman, psikiatra profesionalak kalean lagunduta, pertsonak mendekotasuna eta jokabide-nahasmendua dituelako eta ez delako MOTZekin lotzen; etxebizitza-sisteman, etxebizitza sozialetarako laguntza pertsonalizatuko programen bidez, etxerik gabeko pertsona delako; diru-sarreraren bermea eskuratzeko malgutasunean; gizarte-laguntzan eta gizarte-zerbitzuen sistemaren berezko harremanak indartzean eta erreferentziazko profesionala nor izan behar den)”.

**Laugarrena.-** Azaldutakoan oinarrituta, gazte horri arreta ematea bai araudian, bai zerbitzuen eta prestazioen zorroan xedatuta dago. Etxerik ez edukitzeari dagokionez, adierazi behar da egoera horrek ez duela zerikusirik bere inguruabarren araberrako arreta-zerbitzurik ez egotearekin, baizik eta bere jokabidearekin; izan ere, adierazi den bezala, ez zituen zerbitzuen funtzionamendu-arauak betetzen.

Zerbitzu eta baliabideetatik nahi gabe kanporatzea edo irtetea gero eta kezka handiagoa da Arartekoarentzat. Gizarte-babesik gabeko egoeran dauden pertsonak, bizilekurik ez dutenak eta, batzuetan, jokabide-arazoak, nahasmendu mentalak edo zailtasun kognitiboak dituztenak —droga-kontsumoarekin lotuta egon daitezke—, kanporatu egiten dituzte egoitza-zentroen edo etxebizitza komunitarioen bizikidetzatza- eta funtzionamendu-arauak behin eta berriz ez betetzeagatik. Jokabide horiek zerbitzuen funtzionamendua eta zentroetako bizitza desitxuratzen dituzte, bizikidetzari eta zentroetan ematen den arretari eragiten baitiete.

Arartekoaren iritziz, beharrezkoa da jokabide horiei ikuspegi desberdinetatik aurre egiteko moduari buruz gogoeta egitea: inplikaturako pertsonaren ikuspegitik, gainerako erabiltzaileen ikuspegitik, eta esku-hartze sozialak egitean aurre egin behar zaien indarkeria-gertaerei lotutako arrisku profesionalaren ikuspegitik.

Era berean, pertsonaren gizarte- eta hezkuntza-alderdia ez da lineala; izan ere, egindako kaltea birbideratzeko edo berriz aztertzeke, egindako kaltetik autoikasteko edo egindako kaltea aitortzeke aukerak daude. Alderdi juridikoak mugak eta bermeak gehitu behar dizkio pertsonen eskubideei eragiten dieten jarduketei. Jokabide zigorgarriak eta ezarri beharreko zigorrak edo eskubideak murrizten dituen edozein ondoriok alde aurretik xedatuta egon behar dute, eta argi eta zehatz tipifikatu behar dira. Zigor-prozedurak alegazioak egiteko aukera jaso beharko du, trataturako pertsonak zer jokabide izan dituen azaltzeko eta zigorra erabaki aurretik defendatzeko aukera izateko.



Berrero gogora ekarri nahi ditugu Arabako Foru Aldundiak egindako gogoetak:

“-Zer lehenetsi esku-hartzean, pertsonak bere bizi-prozesuekiko duen erantzukizuna, erakundeek arreta bermatzea, esku hartzen duten profesional anitzen arteko harreman-prozesuak jarraitzea.

-Nola mantendu lotura profesionala eta laguntza-harremana, egoera kaltebera bat eraldatzeko.

-Zein diren borondatearen eta derrigortasunaren arteko mugak.

-Nola bermatu esku-hartze profesionalaren alderdi etikoak, betiere kalterik ez egitearen printzipioa eta justizia-, autonomia- eta ongintza-printzipioak errespetatuz”.

Arartekoaren iritziz, gai garrantzitsu horiei ez zaie behar bezalako arreta jarri gizarte-zerbitzuen arauak garatzerakoan.

Hain zuzen ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren 25. artikulua 3. atalean xedatzen denez, EAEko administrazio publikoek beren eskumeneko zerbitzu eta prestazio ekonomikoei heltzeko eskubidea eteteko eta iraungitzeko prozedura arautu beharko dute, betiere erabiltzaileari bermatuz, besteak beste, prozeduraren izapidetzearen egoerari buruzko informazioa jasotzeko, alegazioak egiteko eta entzunaldi izapidetan entzuna izateko eskubidea. Bestalde, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9.1 artikulua aitortzen du erabiltzaileek eskubidea dutela, banaka edo taldeka, eragiten dieten erabakietan eta zerbitzuen funtzionamenduan parte hartzeko, bai eta eskubideak eraginkortasunez baliatu eta defendatzea ahalbidetuko duten informazio, iradokizun eta kexa bideetara iristeko eskubidea ere.

Araudi hori garatu ez bada ere, prozedura horiek garrantzitsuak dira, eta beraz arreta-zentroetatik —batez ere gaueko arreta-zentroetatik— nahi gabe kanporatzeari eta irteteari aurre egiteko moduari buruz hausnartzea eta eztabaidatzea eskatzen dute, berme juridikoak eta gizarte- eta hezkuntza-bermeak egon daitezzen. Halaber, horretarako arau-tresna egokia lantzeari buruz ere hausnartu eta eztabaidatu behar da.

**Bosgarrena.-** Bestalde, egoitza-baliabide batetik kanporatzeko baldintza izan beharko litzateke kanporatutako pertsonak bizileku bat edukitzea, bere osotasuna arriskuan ez jartzeko.

Europako Gutun Sozial berrikusia (CSER, Europako Kontseiluaren arau-tresna) 2021eko uztailaren 1ean sartu zen indarrean Espainian, Berrespen Agiria argitaratu ostean; eta gutun horrek konpromiso gisa dakar eskubide jakin batzuk betetzea, hala nola: gizarte-laguntzarako eskubidea (13. artikulua<sup>2</sup>) edo pobreziaren eta

---

<sup>2</sup> **Artículo 13. Derecho a la asistencia social y médica.** “Para garantizar el ejercicio efectivo del derecho a la asistencia social y médica, las Partes se comprometen: 1. a velar por que toda persona que no disponga de

gizarte-bazterkeriaren aurkako babeserako eskubidea (30. artikulua), etxebizitzarako eskubidea (31. artikulua) eta desgaitasuna duten pertsonen erabateko gizarteratzea izateko duten eskubidea (15. artikulua). Hori guztia Espainiako Konstituzioaren 96. artikuluari eta Nazioarteko Tratatuaren eta Akordioaren azaroaren 27ko 25/2014 Legearen 28. artikuluari jarraiki. Horrez gain, lege horren 29. artikuluari jarraiki, agintari publiko guztiek nazioarteko betebeharrak zuzen bete daitezela babestu behar dute dagokien eskumen-esparruan. Horri dagokionez, Konstituzio Auzitegiak, ekainaren 20ko 87/2019 epaian, betebeharrak horren eskumena agintari autonomikoek dutela adierazi zuen.

CSERen 31.2 artikuluari jarraikiz, Gizarte Eskubideen Batzordeak adierazi du xedapen horren aplikazio-eremuan sartzen direla aterpetxeak. Administrazioek aterpetxe horiek eskaini behar dituzte larrialdiko irtenbide gisa, etxebizitza egokirik ez duten pertsonak kalean ez gelditzea saihesteko<sup>3</sup>. Ildo horretan, Batzordeak adierazten du aterpetxe horietatik beste bizileku bat eskaini gabe kanporatzea CSERen aurkakoa dela<sup>4</sup>.

Europako Gutun Soziala indarrean jartzeak balio beharko luke egoitza-zentroetatik ateratzen diren pertsonen "ez-betetze" jokabideei erantzun behar zaien moduari buruz hausnartzeko. Batzordeak adierazi du, gizarte-laguntzarako eskubidea mugatzeko arrazoia justifikatuta dagoen kasua bada ere, interpretazio murriztailea

---

*recursos suficientes y no esté en condiciones de conseguirlos por su propio esfuerzo o de recibirlos de otras fuentes, especialmente por vía de prestaciones de un régimen de seguridad social, pueda obtener una asistencia adecuada y, en caso de enfermedad, los cuidados que exija su estado; 2.a velar por que las personas que se beneficien de tal asistencia no sufran por ese motivo disminución alguna en sus derechos políticos y sociales; 3.a disponer lo preciso para que todas las personas puedan obtener por medio de servicios adecuados, públicos o privados, el asesoramiento y ayuda personal necesarios para prevenir, eliminar o aliviar su estado de necesidad personal o familiar; 4. a aplicar las disposiciones mencionadas en los párrafos 1, 2 y 3 del presente artículo, en condiciones de igualdad con sus nacionales, a los de las restantes Partes que se encuentren legalmente en su territorio, conforme a las obligaciones derivadas del Convenio Europeo de Asistencia Social y Médica, firmado en París el 11 de diciembre de 1953."*

<sup>3</sup> **Gizarte Eskubideen Batzordea.** Conference of European Churches (CEC) Herbehereen aurka, 90/2013 kexa kolektiboa, 136-139 paragrafoa. Eskuragarri hemen: [https://hudoc.esc.coe.int/eng/#f{%22fulltext%22:\[%2290/2013%22\],%22sort%22:\[%22ESCPublicationDate%20Descending%22\],%22ESCCmplNum%22:\[%2290/2013%22\],%22ESCDcType%22:\[%22FOND%22,%22Conclusion%22,%22Ob%22\],%22ESCDcIdentifier%22:\[%22cc-90-2013-dmerits-en%22\]}](https://hudoc.esc.coe.int/eng/#f{%22fulltext%22:[%2290/2013%22],%22sort%22:[%22ESCPublicationDate%20Descending%22],%22ESCCmplNum%22:[%2290/2013%22],%22ESCDcType%22:[%22FOND%22,%22Conclusion%22,%22Ob%22],%22ESCDcIdentifier%22:[%22cc-90-2013-dmerits-en%22]})

<sup>4</sup> **Gizarte Eskubideen Batzordea.** Ondorioak (2015), 31.2. artikulua (20. paragrafoa) *Statement of interpretation.* Eskuragarri hemen: [https://hudoc.esc.coe.int/eng/#f{%22sort%22:\[%22ESCPublicationDate%20Descending%22\],%22ESCArticle%22:\[%2231-02-163%22\],%22ESCDcType%22:\[%22Ob%22\],%22ESCDcIdentifier%22:\[%222015\\_163\\_09/EN%22\]}](https://hudoc.esc.coe.int/eng/#f{%22sort%22:[%22ESCPublicationDate%20Descending%22],%22ESCArticle%22:[%2231-02-163%22],%22ESCDcType%22:[%22Ob%22],%22ESCDcIdentifier%22:[%222015_163_09/EN%22]}) Bestalde, Gizarte Eskubideen Batzordeak, prestazio ekonomikoei eragiten dieten jokabideak aipatzean, honako hau adierazi du: XIX-2 (2009) ondorioak, Luxenburgori dagokionez: *"De acuerdo con el artículo 3.1.b) de la Ley [luxemburguesa] de 2004, las personas que han sido excluidas por conductas graves no tienen derecho al RMG ["revenu minimum garanti", ingreso mínimo garantizado]. El Comité preguntó [al Estado luxemburgués] a qué medios de subsistencia tenían derecho dichas personas. Entre tanto, el Comité determinó que la vinculación entre la exclusión por conducta grave y el derecho a la asistencia social era contraria a la Carta. Como no ha habido cambios durante el periodo de supervisión transcurrido, el Comité reitera este motivo de disconformidad".* Aunque el objeto de análisis por el Comité Europeo de Derechos sociales es una prestación económica ("revenu minimum garanti", ingreso mínimo garantizado), se estima de interés llamar la atención sobre la opinión del Comité relativa a que la vinculación entre la exclusión por conducta grave y el derecho a la asistencia social no es conforme a la CSER".



egin behar zaiola. Hala, legezko oinarri garbia izan behar du, bidezko helburua lortu, eta gizarte demokratiko batean justifikatuta egon behar du<sup>5</sup>.

Arartekoak uste du interesgarria dela hausnartzea ea bidezkoa den gizarte-zerbitzuen erabiltzaileak, beste bizileku bat eskaini gabe, zerbitzu batetik kanporatzea beren jokabidean oinarrituta. Era berean, erabaki horren hedadura eta irismenari buruz hausnartu behar da.

Testuinguru horretan, gizarte eta hezkuntza esku-hartzeak elementu nagusia izan behar duen arren, sakonago aztertu behar da jokabide-arazoei nola heldu behar zaien, zigor-prozeduraren oinarritzko bermeak errespetatzen direla bermatzeko, hala nola: bete beharreko betebeharren eta horiek ez betetzearen ondorioen berri ematea, aurretiazko entzunaldia eta behin betiko erabakiaren aurretik alegazioak egiteko aukera ematea, jarraitutako prozedurari buruzko jakinarazpenen ziurtasuna, ezarritako zigorra eta zigor-ebazpenaren aurka egiteko aukera. Hala ere, bizikideen edo zentroko langileen osotasuna arriskuan jarri badaiteke, badaezpada berehala kanporatzea erabaki ahal izango da. Azken kasu horretan, dena den, beste bizileku bat eskaini beharko litzateke etxerik gabe gelditzea saihesteko.

Azken batean, indarrean dagoen araubide juridikoa kontuan hartuta (12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, eta 85/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa), beharrezkoa dirudi azpimarratzea garrantzitsua dela administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, kudeatzen dituzten zerbitzuen erabiltzaileen jokabide disruptiboari aurre egiteko egin beharreko jarduketak mugatzea, gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen beharrak eta ezaugarriak kontuan hartuta.

Nolanahi ere, ondorio horietarako osagarri gisa Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea (APEL) aplikatzen den heinean, zigor-prozedurak lege horretan (APELen 88., 89. eta 90. artikulua) eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutako bermeak jaso beharko lituzke<sup>6</sup>.

## ONDORIOAK

**LEHENA.-** Arartekoak berriz ere azpimarratu nahi du administrazioen arteko eta administrazioen barneko koordinazioak eta lankidetzak garrantzi handia dutela pertsonan oinarritutako arretaren eta esku-hartzearen jarraitutasunaren printzipioak betetzeko orduan. Izan ere, printzipio horiek funtsezkoak dira gizarte-zerbitzuen

<sup>5</sup> **Gizarte Eskubideen Batzordea.** Greek General Confederation of Labour Greziaren aurka, 111/2014 kexa kolektiboa, 83. parag. Eskuragarri hemen: [https://hudoc.esc.coe.int/eng/#{%22sort%22:\[%22ESCPublicationDate%20Descending%22\],\[%22ESCDIdentifier%22:\[%22cc-111-2014-dmerits-en%22\]}](https://hudoc.esc.coe.int/eng/#{%22sort%22:[%22ESCPublicationDate%20Descending%22],[%22ESCDIdentifier%22:[%22cc-111-2014-dmerits-en%22]})

<sup>6</sup> Euskal Administrazio Publikoen zigortzeko ahalmenari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legeak hura indargabetzea aurreikusten du. Lege berri hau EHAAan argitaratu eta hiru hilabetera sartuko da indarrean.



esparruan (Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 7. artikulua eta Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 5. artikulua). Koordinazioak lehenetsua izan behar du gizarte-bazterketako kasuetan<sup>7</sup>.

**BIGARRENA.**- Arartekoak eskatzen du desgaitasuna eta mendekotasuna duten pertsonen eta arrisku-egoeran edo gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen ematen zaien arretaren lehenetsun-irizpideei buruz hausnartzeko, une oro "lehenetsua" duten pertsonen beharrei erantzuten zaiela bermatzeko<sup>8</sup>.

**HIRUGARRENA.**- Arartekoaren ustez, jokabide-arazoengatik gizarte-zerbitzu batetik nahitaez irten behar izatea edo horixe beragatik gizarte-zerbitzuetan ezin sartu izatea berriaz arautu behar da, berme juridikoak hobetzeko eta, Etxegabeentzako Euskal Estrategiarekin koordinatuta, etxegabetasun-egoerak saihesteko. Araudi horrek errespetatu egin beharko du CSERek aitortutako gizarte-laguntzarako eskubidea eta bat etorri beharko du Gizarte Eskubideen Batzordearen interpretazioarekin.

Adierazitakoa kontuan hartuta, [Arartekoaren Ebazpenaren](#) edukia berriz gogora ekarri nahi da, zeinak 2020ko ekainaren 5eko 2/2020 Gomendio Orokorren jarraipena amaitzen duen: *"Euskal administrazio publikoek jarraipena eman behar diete kalean bizi diren pertsonak artatzen orain arte egindako ahaleginei, betiere Etxegabeentzako Euskal **Estrategiako** (2018-2021) jarraibideak betez"*<sup>9</sup>.

**LAUGARRENA.**- Era berean, beharrezkoa da etxerik gabeko pertsonak egoitzazentrotatik kanporatzeak dakarren prozedurari eta ondorioei buruz hausnartzea, kasu guztietan bitoki-alternatiba bat eskaintzeko eta edozein erabakiren oinarritzko prozedura-bermeak indartzeko, zigor-prozeduraren printzipioekin bat etorritik.

<sup>7</sup> **Gizarte Eskubideen Batzordeak** ere gai horri buruzko iritzia eman du CESRen 13.3 artikuluari dagokionez, 14.1 eta 30. artikuluekin lotuta. Ondorioak (2013), Bosnia eta Herzegovina. Eskuragarri hemen: [https://hudoc.esc.coe.int/eng/#{%22sort%22:\[%22ESCPublicationDate%20Descending%22\],%22ESCDclIdentifier%22:\[%222013/def/BIH/13/3/FR%22\],%22ESCDcType%22:\[%22Conclusion%22\],%22ESCStateParty%22:\[%22BIH%22\]}](https://hudoc.esc.coe.int/eng/#{%22sort%22:[%22ESCPublicationDate%20Descending%22],%22ESCDclIdentifier%22:[%222013/def/BIH/13/3/FR%22],%22ESCDcType%22:[%22Conclusion%22],%22ESCStateParty%22:[%22BIH%22]});

XIII-4 ondorioak (1996), 13. artikulua *Statement of interpretation*. Eskuragarri hemen: [https://hudoc.esc.coe.int/eng/#{%22sort%22:\[%22ESCPublicationDate%20Descending%22\],%22tabview%22:\[%22document%22\],%22ESCDclIdentifier%22:\[%22XIII-4/def/DNK/13/3/EN%22\]}](https://hudoc.esc.coe.int/eng/#{%22sort%22:[%22ESCPublicationDate%20Descending%22],%22tabview%22:[%22document%22],%22ESCDclIdentifier%22:[%22XIII-4/def/DNK/13/3/EN%22]});

XVII-2 ondorioak (2005), 14.1. artikulua *Statement of interpretation*. Eskuragarri hemen: [https://hudoc.esc.coe.int/eng/#{"sort":\["ESCPublicationDate%20Descending"\],"tabview":\["document"\],"ESCDclIdentifier":\["XVII-2/def/AUT/14/1/EN"\]}](https://hudoc.esc.coe.int/eng/#{)

<sup>8</sup> Horrek administrazio publikoen arloek aldizkako bilerak egitea (arloen artean eta arloen baitan) eska dezake. Era berean, prozesu indibidual bakoitzaren bilakaerara eta alderdi anitzetara egokituko diren plazarak finantzatzeko zerbitzuen artean akordioak lortzea eska dezake.

<sup>9</sup> Zehazki Arartekoaren ebazpenaren 3 eta 30 ekarpenak, zeinaren bidez, zeinaren baita 2020ko ekainaren 5eko Arartekoaren 2/2020 Gomendio Orokorren bilakaera aztertzeke lana. Honela dio gomendioak: *"Euskal administrazio publikoek jarraipena eman behar diete kalean bizi diren pertsonak artatzen orain arte egindako ahaleginei, betiere Etxegabeentzako Euskal Estrategiako (2018-2021) jarraibideak betez"*. Hemen eskuragarri: <https://www.ararteko.eus/eu/arartekoak-etxegabeei-buruz-egindako-2020ko-ekainaren-5eko-2020-gomendio-oro-korren-bilakaera-aztertzeke-lanean-ateratako-ondorioak-eta-etorkizunerako-ekarpenak>